



www.begiko.com

© Testua: 2018, UNAI ELORRIAGA

© Irudiak: 2018, ALEX ORBE

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-20-9

Lege-gordailua: M-4559-2018

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Erraldoiek ez dute lagunik jaten

Unai Elorriaga

Irudiak: Alex Orbe

begiko

Garbiñe eta Mariñe

Garbiñek, kalean txakur-kaka bat ikusten duen bakoitzean, abesti bat aukeratu eta txakurraren jabeari kantatzen dio. Zenbat eta kaka handiagoa, orduan eta kantu luzeagoa. Oso txarto kantatzen du Garbiñek, *do* behar den bakoitzean, *sol* kantatzen du eta *sol* behar den bakoitzean, irrintzia botatzen du. Txakurren jabeak zoratu egiten dira, zorabiatu, ihes egin nahi dute, baina Garbiñe atzetik joaten zaie, eta etxean sartzen badira, leihopean aritzen da kantari, iluntzera arte. Gauerdira arte batzuetan, txakurrak beherakoa bazuen eta kalean txokolatibaia utzi badu.

8 Mariñek zorri-bilduma dauka etxean, ehunka zorri kutxetan, milaka zorri, eta jende artean erretzen ari zen pertsona bat ikusten duen bakoitzean, erretzailearen ondoan hamabost bat zorri askatzen ditu. Erretzailak segituan amatatu behar du zigarroa azkurari kasu egiteko. Hazka eta hazka aritzen da iluntzera arte. Gauera arte batzuetan. Mariñek milioika zorri ditu etxeko bilduman, kutxetan banatuta, sailkatuta, handiagoak, txikiagoak, hanka gehiagokoak, gutxiagokoak, beltzak, marroiak, horixkak, eta hamabost bat askatzen ditu beti erretzaileen ondoan. Batzuk Mariñeren etxera itzultzen dira lana egin eta gero; beste batzuk erretzailearen buruan geratzen dira, gozo-gozo, sofa batean egongo balira bezala, odola edaten eta pelikulak ikusten.

Lagun handiak dira Garbiñe eta Mariñe. Batzuek laurogei urte dituztela diote; beste

batzuek laurogeita hamar eta gehienek esaten dutenez, berrehun urte baino gehiago dauzka bakoitzak; bien artean bostehun.

Auzokoak izan dira beti, txikitatik, lagun handiak. Txikitan lotsatiagoak ziren, baina hirurogeita hamar urte bete zituztenean, lotsa guztiak galdu eta orain nahi dutena egiten dute, nahi dutenean eta nahi duten moduan. Ondo iruditzen zaiena egiten dute, ez diete kasurik egiten araei edota legeei... Hainbeste urte bizi eta gero, ederto dakite zer dagoen ondo eta zer dagoen txar-to, beste inork agindu gabe.

Bazkalorduan, adibidez. Zapiak inoiz ez dituzte erabiltzen Mariñek eta Garbiñek. Eskuaz garbitzen dituzten ezpainak, ris-ras. Esku bat ez bada nahikoa, bestea erabiltzen dute eta, eskuak zikin daudenean, besoaz kentzen dute masaileko tomatea. Ukondoak mahai gainean jartzen dituzte; janariari la-

guntzeko ez dute ogia erabiltzen, atzamarrak baizik; koilara guztiak zakarrontzira bota dituzte, zopa zurrupadaka edaten dute eta...

10 Ikusten denez, zikinkeriak gustatzen zaizkie Garbiñeri eta Mariñeri. Esaten dute zikinkeriek ez diotela inori minik ematen, batez ere berehala garbitzen direnean, txakur-kakak bezala, eta hori dela printzipalena, inori minik ez ematea. Lege eta arau txotxoloen kontra daude bereziki lagun biak.

Ezkontza batera gonbidatu zituzten behin Garbiñe eta Mariñe. Herriko alkatea ondoko herriko alkatearekin ezkontzeko zen, eta herri biak gonbidatu zituzten ezkontzara. Herri txikiak dira, baina jendetza bildu zen azkenean.

Udaletxeak

RONALDAren eta FITIPALDIren
ezkontzara gonbidatzen zaituzte

*Jantziak: gizonekoak beltzez goitik behera /
emakumezkoak zuriz goitik behera*

*Oparirik ez. Dirua baino ez dugu onartuko
opari moduan.*

Hori izan zen gonbidapena. Derrigorrez zuriz joan behar zutenez goitik behera, beltzez joan ziren ezkontzara, jakina, Garbiñe eta Mariñe; Mariñe bufanda gorritz, eta Garbiñe kapela eta eskularru urdinez. Horrezaz gainera, oparia eramán zuten, nola ez zuten eramango... Baina ez zieten alkateei dirurik eman, eurek nahi zuten bezala: Garbiñek txakur-kaka pilo bat sartu zuen kutxa marroi batean eta Mariñek lurrean topatu zituen zigarrokin guztiak sartu zituen kristalezko botila batean. Opari ederrak biak Ronaldak alkatearentzat. Esan zioten Fiti-paldiri ere eman ahal ziola oparien zati bat, hala nahi izanez gero. Mariñek gehitu zuen:



—Zorri batzuk ere badauzkat, RONALDA.
Zure ile-zapa horietan gustura egongo ziren...

—Nik badauzkat sagar usteldu batzuk
etxeko zakarrontzian. Ezkontza eta gero
gosez geratzen bazarete, ez daukat arazorik
dozena bat ekartzeko...

Ezkontza ondo hasi zen, baina apurka-
apurka deseroso sentitzen hasi ziren Garbi-
ñe eta Mariñe. Izan ere, zopa zurrupadaka
jateko keinua egiten zutenean, koilara bana
ekartzen zien zerbitzari batek; muturra
besoaz garbitu nahi zutenean, zapia jar-
tzen zien ondoan beste zerbitzari batek, eta
mukiak atzamarraz ateratzeko imintzioa
egiten zutenean, mukizapia jartzen zien
hirugarren zerbitzari batek sudurrean eta,
dotorezia handiz, esaten zien:

—Zintz egin, mesedez, anderea...

Aspertuta, nazkatuta eta amorratuta zeu-
den Mariñe eta Garbiñe. Zergatik ezin zu-

ten nahi zutena egin? Zer zen hura, ezkontza ala kartzela? Nori egiten zion kalte muki garbi batek? Nazkatu egin ziren, aspertu, amorratu. Garbiñek ideia izan zuen orduan: ezkontza hartan zeuden bi herrien arteko lehiaketa antolatu zuen. Baina ez nolana-hiko lehiaketa, Munduko Lehen Korrokada Lehiaketa baizik.

Jendeari lehiaketak gustatzen zaizkio, txapelketak, mota guztietako jokoak, eta herri bietako biztanle gehienek eman zuten izena, bestela nahiko aspergarria zen ezkontza eta...

Hura korrokada-festa: korrokada luzeak, laburrak, finak, koloretakoak, txorizo-korrokadak, musikalak, puzker itxurakoak... Ederrak guztiak! Fitipaldi eta Ronaldalari ematen zuten udaletxeko gela erraldoi hark, usain txarrekoa eta are soinu okerra-

gokoa. Negarrez hasi zen Fitipaldi eta protestaka Ronalda, baina gutxien espero zuen unean, korrokadatxo bat atera zitzaion ezta-rritik, nahi gabe. Jendeak txalotu egin zuen eta korrokada txapelketako hirugarren saria eman zioten Ronaldari.

Bigarren saria opera-kantari batek eram-
man zuen, baina bat baino gehiago kexatu
zen, korrokadalari profesionala zela esaten
zuten eta. Lehen saria, neska txiki batek
lortu zuen, ballet-dantzaria bera. Saria jaso
zuenean, honakoa esan zuen:

—Hau da, hain zuzen ere, bizitzan bota
dudan lehen korrokada.

Egun horretatik aurrera, Garbiñeri «Ziki-
ñe» deitu zioten herriko batzuek, baina ez
min emateko asmoz, baizik eta kariñoz eta
ezkontza egunean hain lehiaketa dibertiga-
rria asmatzeagatik esker onez.